



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko azaroaren 20a

130. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, ikus-entzunezkoen ekoizpenaren eta sektore horretako finantzaketa publikoko irizpideen arlo orokorrari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, gure foru komunitateko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloarekin lotutako politika orokorrari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, bidaiarien eta salgaien garraiorako egungo trenbide-sare konbentzionalari buruzko politika orokorrari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion diru publikoarekin lagundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen inongo ikastetxeri. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioa premiatzen da izaera egonkorra eman diezaion Transfugismoaren aurkako Itunaren Jarraipen Batzordeari. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultura-ekitaldiak egiteko protokolo bat egin dezan, kultura-eragileekin lankidetzan. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da sortu beharreko fiskal-lanpostuak sor ditzan, Nafarroako populazio osoari zerbitzu emateko. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako larrialdietako laguntza fakturatzeko prozedurari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen osasun-txartela eskuratzeko prozedurari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Gizarteratzeko eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Batzordea sortzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, migratzaileak eta errefuxiatuak Hartzeko Nafarroako Sareari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (13. or.).

- Galdera, berdinen arteko mentoretza programari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, toki entitateekin eta gizarte-entitateekin kulturen arteko bizikidetzarako ekintzak indartzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, integrazioaren aldeko hiri eta eskualdeen sarearen barruan Europako ikuspegia eta begirada duten ekintzak indartzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Ollokiko oinezkoentzako pasabide seguruari buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, A-12 autobiarari eta Pirinioko Autobia deitutakoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko telefono-lineen saturazioari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, 5G telefonia mugikorraren hedapenari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta haren enplegu-agentzietan aurkeztutako kexak areagotzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan arreta handitzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (17. or.).
- Galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan lan egiten duten langile-kopuruari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren orientazio-zerbitzuetan artatutako pertsonen buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu-agentzietako orientatzaile bakoitzarentzat ezarritako arreta-ratioei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Iruñerriko trenbide-sare berriaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungitzearen ondorioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, administrarien behin-behinekotasun luzeari buruzko epaiaren ondorioei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, ikus-entzunezkoen ekoizpenaren eta sektore horretako finantzaketa publikoko irizpideen arlo orokorrari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko interpelazioa, ikus-entzunezkoen ekoizpenaren eta sektore horretako finantzaketa publikoko irizpideen arlo orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ikus-entzunezkoen ekoizpenaren eta sektore horretako finantzaketa publikoko irizpideen arlo orokorrari buruzko interpelazioa, Nafarroako Gobernuari zuzendua.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

## **Interpelazioa, gure foru komunitateko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloarekin lotutako politika orokorrari buruzkoa.**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko interpelazioa, gure foru komunitateko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloarekin lotutako politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Gure foru komunitateko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloarekin lotutako politika orokorrari buruzko interpelazioa, Nafarroako Gobernuari zuzendua.

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **Interpelazioa, bidaiarien eta salgaien garraiorako egungo trenbide-sare konbentzionalari buruzko politika orokorrari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko interpelazioa, bidaiarien eta salgaien garraiorako egungo trenbide-sare konbentzionalari buruzko politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du.

Nafarroako Gobernuak bidaiarien eta salgaien garraiorako egungo trenbide-sare konbentzionalaren gainean duen politika orokorrari buruzko interpelazioa.

Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentek (AIReF) joan den uztailan emandako txostenak Estatuko Gobernuari gomendatzen dio berriro ebaluatu eta planteatu ditzan Abiadura Handiko Trenean (AHT) exekutatu gabe dauden inbertsioak eta proiektuak.

Zehaztu beharko litzateke, kontuan hartuta Espainiak daukala, hedapenaren aldetik, munduko AHT sareetan bigarrena, 3.000 kilometrotik gorakoa, ea posible den, egiteke dagoen proiekturen baten bidez, mugikortasunaren helburu bera betetzea kostu txikiagoarekin eta eraginkortasun handiagoarekin.

Gainera, Airefeko berresten du AHT sarea gutxi erabiltzen dela eta, horren ondorioz, linea guztiek erakusten dutela “errentagarritasun sozioekonomiko hutsa edo guztiz txikia”.

Egitate objektiboa da AHTren onura sozialek ez dituztela konpentsatzen haren eraikuntzaren kostu finkoak, eta are gutxiago segurtasuna eskaini ziurgabetasuneko eszenatokitik, non funts publikoen aukera-kostua handia den, aipatu txostenak dioen bezala.

Beste alde batetik, Sustrai Erakuntza Fundazioak emandako informazioari esker berriki jakin dugunez, Trantsizio Ekologikorako eta Erroka Demografikorako Ministerioak (lehenago Ingurumen Ministerioa) 2019ko urrian iraungitza deklaratu zuen Iruñerriko AHT proiektua, Arrizabalaga-Iruña tarteari eta Iruñeko kiribilguneari buruzko ingurumen-inpaktuaren adierazpenak indarra galtzeagatik. Anekdotak bat bada ere, zalantzarik gabe beste adierazpen bat egonen delako, Nafarroan AHTren proiektuak duen aldakortasunaren eta zorrotasun eskasaren isla da.

Edonola ere, Nafarroan AHT proiektua finantzatzeko inbertsio handiak eskatzen ditu, nahiz eta tren horrek ez duen salgaiak garraiatuko eta ez duen bidaiaririk hartuko tarteko geltokietan, ezta geltoki horiek Iruñarekin lotuko ere. Beraz, errentagarritasun sozial guztiz urria izanen luke.

Kezkatuta gaude salgaien garraioarekin eta eskualde arteko bidaiarien garraioarekin, baita distantzia ertain eta luzeko loturekin ere, bermatu eta sustatu behar baitira.

Horiek horrela, honako interpelazio hau aurkeztu dugun, Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari, jarrerari eta aurreikuspeni buruz, trenbide-sare konbentzionala modernizatu eta eguneratzeari dagokionez, Europako eta Ebroko ardatzeko trenbide-sareekin lotuta salgaiak garraiatzeko, eta Nafarroan egun dauden geltokietatik bidaiariak garraiatzeari dagokionez ere.

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion diru publikoarekin lagundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen inongo ikastetxeri.**

### **BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez diezaion diru publikoarekin lagundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen inongo ikastetxeri.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaile denak, Ganberaren Araudiari jarraiki ondoko mozioa aurkeztu du sexu-segregazioa eragiten duten ikastetxeak diru publikoz ez laguntzeari buruz, Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Azken urteotan herritarren arteko berdintasuna lortzeko eta sexu, genero edo identitate sexualaren arabeko diskriminazioari aurre egiteko hainbat lege onartu dira Nafarroan. Esaterako:

– 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.

– LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea.

– 17 /2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.

Horrez gain, eta ildo berberari jarraiki, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko aldaketa estrukturalak egiteko hezkuntzak eta

hezkidetzak daukan garrantzia agerikoa izan da, eta bada. Hartara, Skolae programa Nafarroako Hezkuntza Sistemari ezartzeko eta berau orokortzeko borondatea sustengu argia erakutsi du Nafarroako gehiengo politiko eta sozialak. Geure ikasleak berdintasunean hezteko hautu estrategikoa da.

Ikuspegi horretatik, Nafarroako parlamentuaren gehiengoak 17/2012 Foru Legea onartu zuen, sexuaren arabeko segregazioa egiten zuten ikastetxeek kontzerturik izateko aukerarik eduki ez zezaten. Tamalez, LOMCEk blindatu egin zuen aukera hori eta legea indargabetuta geratu zen.

Zorionez, une honetan Kongresuan tramitazioan dagoen LOMLOE legeak irauli egingo du egoera hau, itxura guztien arabera. Onartutako zuzenketa baten arabera, osoki edo partzialki diruz lagundutako ikastetxeek ezingo dute ikaslearen sexuaren arabeko banaketarik egin. Nafarroan, zehazki, lau dira sexuaren arabeko segregazioa egiten duten ikastetxeak, eta orain arte itunduta egon dira Nafarroako Gobernuarekin, finantzazio publikoa jasotzen dutelarik.

Honengatik guztiarengatik, honako ebazpen proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du sexu-segregazioan oinarritutako hezkuntzaren eredu baztertzaila dela eta bultzatzen dituen balio eta harreman ereduak ez datozela bat azken urteotan Nafarroan egindako urratsekin, hezkidetzarekin eta berdintasunean oinarritutako politika publikoekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ez dezala diru publikoz lagundu ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen hezkuntza eredu duen inongo ikastetxerik, eta hori 2021-22. ikasturteetik aurrera gauzatzeko plana aurkez dezan hiru hilabeteko epean.

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Mozioa. Horren bidez, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioa premiatzen da izaera egonkorra eman diezaion Transfugismoaren aurkako Itunaren Jarraipen Batzordeari.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioa premiatzen baita izaera egonkorra eman diezaion Transfugismoaren aurkako Itunaren Jarraipen Batzordeari.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko honako mozio hau aurkeztu du transfugismoa errefusatzeko, egonkortasun demokratikoa leherrarazten duen ustelkeria politikoa jarraitzea baita.

Transfugismo politikoa, politikaren eta etikaren ikuspegitik, erabateko desleialtasuna da, bai pertsona horiengan konfiantza jarri zuten formazio politikoei geroago konfiantza ez zutela merezi erakutsi bazuten ere, bai eta boto emaleekiko ere, boto hori eman zutelako hautagaiak hautagaitzerrenda politikoa jakin batean sartuta egoteagatik.

1998ko uztailaren 7an Diputatuen Kongresuan ordezkari zuten indar politiko nagusiek akordio bat sinatu zuten transfugismoa dela-eta jokabide zuzenaren kode bat aplikatzeko. Kode hori, aurrerago, eraberritu eta eguneratuko zen 2000ko irailan, 2006ko maiatzean eta azkenik aurtengo azaroaren 11n.

2006ko maiatzaren 23an, Administrazio Publikoaren Ministerioa buru zela, Transfugismoaren aurkako Ituna eratu zen. Ituna alderdi politiko

nagusien ordezkariak sinatu zuten, tresna demokratikoak indartzeko konpromiso gisa, ustelkeria mota horren aurka borrokatzeko. Aldi berean, itunaren jarraipenerako batzorde bat eratu zen, transfugismoaren balizko egoerak aztertu eta transfugatzat kalifikatutakoak isolatzeko neurriak hartzeko eginkizunarekin, ekidite aldera haien portaera desleiala baliatua izan dadila herritarren hautuaren bidez modu demokratikoan eratu ziren gehiengoak eraldatzeko eta erakunde publikoetan ezegonkortasunari hauspoa emateko.

Transfugismoaren aurkako Itunak dituen hamar puntuetatik lehenean honela definitzen dira transfugak: “beren zerrendako edo/eta taldeko kideak traizionatuz –azken horiek foru nahiz toki hauteskundeetara aurkeztu zituen alderdi politikorekiko leialtasuna mantentzen baitute– edo beraiek aurkeztu dituen alderdi politikoko organo eskudunek finkatutako irizpidetik banaka nahiz taldean aldentuz, edo horietatik kanporatu dituztelako, beste indar batzuekin itunak egiten dituztenak toki entitate bateko gobernu-gehiengoak aldatzeko edo mantentzeko, edo, bestela, gehiengo horri entitatea gobernatzea eragozten edo ezinezko egiten diotenak”.

Jarraian, bigarren puntuan, ezartzen denez, “Ituna sinatzen duten alderdi politikoen konpromisoa hartzen dute beren tokiko talde politikoan errefusatzeko eta ez onartzeko beste formazio bateko hautagaitzan sartuta dagoen zinegotzi bat edo tokiko ordezkari zako kargudun bat ere, jatorriko hautagaitzan eskuratutako kargua mantentzen duen bitartean. Halaber, konpromisoa hartzen dute eragozteko transfugak erabil daitezkeen erakunde publikoetako gobernu-gehiengoak eratzeko, aktiboki mantentzeko edo aldatzeko, horiengandik heldu den ekimenik ez babesteko, eta transfugismo politikoa ez sustatzeko, disuasio-neurrien bidez, beharrezkoa balitz kasuko errege-lamendu-izaerako araudia onetsiz”.

Jarraipen batzorde horrek transfugismoa jazaritzeko abiapuntu bat eta asmo-deklarazio bat ezarri bai, baina eratu zenetik bi urte igaro arte ez zen biltzen hasi. Batzordeak nolabaiteko jardura bat izan zuen 2010era arte, urte horretan egin baitzuen gaur arteko azken bilera. Geroztik, Jarraipen Batzordea ez da behin ere bildu, 2020. urte honetara arte, eta bitartean transfugismoaren



kasu gehiago gertatu izan dira, indar politiko guztietan.

Batzordea berrabiarazi ondoren alderdiek gehigarri bat adostu zuten, honako hau jasotzen zuena:

– Transfugaren definizioa irmoa da, eta halakotzat kalifikatuko da bere formazioa utzi arren edo formazio horretatik kanporatua izan arren bere akta itzultzen ez duena. Formazioak berak zehaztuko du izaera hori inor transfuga ote den zalan-tzan egonez gero. Transfugak ez zaizkie atxikiko haien erakundeei.

– Transfugak ezin izanen du parte hartu inongo talde parlamentario edo instituzionaletan, gobernutan, kasua gertatzen den erakundean edo menpeko beste batzuetan edo bestelakoetan, eta ez du jasoko ordainsari handiagorik erakundeko hautetsia izateagatik hertsiki dagozkionak baino. Alegia, bere jarrerari ez dio atera beharko inolako etekin ekonomikorik eta gehienetan kalte ekonomikoa izanen du, guztizkoa edo partziala.

– Parte hartze politikorako dituzten eskubideak mugatuko dira Konstituzioak eta Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren doktrinak eskatzen duten gutxienera (parte hartzeen gutxienera kopurua, parte hartze gutxienera batzordeetan, organoetan eta besteetan).

– Konpromiso politiko horiek izapidetuko dira gauzatuak izan daitezen beharrezkoak diren lege-eta erregelamendu-aldaketetan, edozein dela ere kasuko erakundean une bakoitzean gobernatzen duena.

– Horri begira aldatetak egingen dira Espainiako erakunde parlamentario guztietan –esaterako, autonomia erkidegoetako batzarrak, Kongresua eta Senatua– eta toki mailako legedia aldatuko da, egun dagoen definizioa zabalitze aldera.

– Legeak aldatzen diren bitartean, sinatzaileek konpromisoa hartzen dute ituna interpretaziorako irizpide gisa erabiltzeko, lege-hutsuneren bat dagoenean.

Navarra Suman ados gaude Transfugismoaren aurkako Itunear jasotako konpromiso etikoarekin, herritarrek hautestontzietan adierazitako borondatearekiko errespetua eta tokiko gobernuetako ordezkari politiko guztiekiko leialtasun politikoa erakusteko. Konpromiso hori, sinetsita gaude, nahitaez berritu behar da gainerako indar politiko-en eskutik, honako helburu honekin: neurri berriak adostea, horien bitartez zehapen eraginkorrak ezarri ahal izateko eta jokabide antidemokratiko horiek errotik mozteko oinarriak jarri ahal izateko, gure ordezkari politikoaren sistema usteltzen baitute.

Arestiko guztiak kontuan hartuta, Navarra Sumak honako ebazpen-proposamen hau aurkeztu du, eztabaidatu eta onesteko.

1. Nafarroako Parlamentuak transfugismoa errefusatzen du, ustelkeria politikoaren jarduketa eta herritarren borondatearekiko iruzurra den heinean, erabateko desleialtasuna baita tokiko ordezkarien hautagaitza babestu duten formazio politikoekiko, eta asmo bakarra baitu onura indibidualeko interesak bilatzea, nahiz eta horrek ekarri herritar guztiek demokratikoki hautestontzietan adierazi duten ordezkari instituzional eta politikoa leherraraztea.

2. Nafarroako Parlamentuak Lurralde Politika-ko eta Funtzio Publikoko Ministerioa premiatzen du izaera egonkorra eman diezaion Transfugismoaren aurkako Itunaren Jarraipen Batzordeari, berriki berrabiarazitako horri, eta haren jarraitutasuna berma dezana, konpromiso politikoa erakutsiz gaitz hori galarazteko eta saihesteko hauteskundeetan parte hartu zuteneko alderdi politikoa utzi duten hautetsiek herritarrek hauteskundeetan demokratikoki adierazitako ordezkari alda dezaten eta tokiko gobernuen egonkortasuna baldintza dezaten.

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultura-ekitaldiak egiteko protokolo bat egin dezan, kultura-eragileekin lankidetzan.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kultura-ekitaldiak egiteko protokolo bat egin dezan, kultura-eragileekin lankidetzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko honako mozio hau aurkezten du, azterlanak egin daitezten COVID-19ak kultura-ekitaldietan izandako inpaktuari buruz, ikuskizun seguruak eta edukiera handiagoak lortzeko protokolo bat garatzeko helburuekin.

Kultura dugu COVID-19aren pandemia hasi zenetik bizirauteko zailtasun handienak dituzten sektoreetako bat, eta funtzionatzeko metodoetan eta ohiko garapenean baldintzatuen geratu direnetako bat. 2020 martxotik kultura-ekitaldien edukiera guztiak baldintzatuta geratu dira, eta hori guztia kontuan hartu gabe edukieraren murrizketengatik zenbat ekitaldi geratu den jatorriko formatuan egin ezinik edo inbertsioa errentagarri bihurtu gabe. Azkenean, haietako asko geroratu behar izan dira, edo besterik gabe bertan behera utzi.

Horrez geroztik, kulturaren sektoreak, eta bereziki zuzeneko ikuskizunek, lan egin dute adizera emateko kultura oinarriko ondasuna dela, beharrezkoa eta, batez ere, segurua, kutsatze-gune gutxien sortu duten sektoreetako bat baita

(Nafarroan ez da kasurik ezagutzen) eta gehien lan egin dutenetakoa, urruntze soziala, maskararen erabilera eta higiena bezalako neurriak bermatzeko.

Ildo horretatik, ikuskizunak eta gainerako kultura-ekitaldiak egiten jarraitu bada ere, edukiera murrizteko neurri gogorrekin, egiaztatu da hainbatetan ez dela aski bizirik mantentzeko sektore hori, langile asko biltzen dituen, eszenatoki nagusietatik harago. Publikoak, oro har, zera ikusten du, artista nagusia edo nagusiak, bere obra erakusten duen idazlea, ikuskizun bateko dantzariak edo erakusketa bateko lanak, baina hori icebergaren punta baino ez da sektore horretan, zeinak lanpostu asko sortzen baitu, guzti-guztiak beharrezkoak direnak era guztietako kultura-ekitaldiak egiteko. Adibide bat dugu ikuskizunen sustatzaile handiekin: haien plantilletako zati handi bat aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean dago, azken hilabeteotan ezin izan delako gutxieneko ekitaldi-kopururik sortu.

Horregatik, administrazio, erakunde eta elkarreetatik lan egin da azterlanak eta proba pilotuak egiteko, ahalbidetuko dutenak amaiera ematea edukieraren murrizketei eta mugei, zeinek era garbian dakarten jarduera jaiste eta, beraz, lanpostu asko galtzea askotan prekariora den sektore batean, sasoiakoz zateagatik eta noizbehinkako lan-zama edukitzeagatik. Azterlan horien xedea – esate baterako, Bartzelonako Apolo aretoan iragarritakoa edo berriki Alemaniako Leipzig hirian egindakoa, 1.700 entzulerekin egindako kontzertua egin baitute– baliagarria izan daiteke ondorioztatzeko nolakoak izanen lirakeen etorkizun hurbileko zuzeneko jarduerak, baina ez datoz bat Nafarroako guneen eta aretoen errealitatearekin, ezta egiten diren kultura-ekitaldien izaera ezberdinekin ere. Halatan, inoiz baino beharrezkoagoa da Nafarroako kulturaren arloari buruzko lanak egitea.

Jakina, egungo murrizketen helburua bizitzak salbatzea eta kutsatzeak ekiditea bada ere, Nafarroan kulturaren sektoreak erantzun eredugarria eman du eta lortu du ekitaldiak antolatzen herritarrei segurtasuna bermatuz eta ehunka jardueratan inolako kutsatze gunerik agertu gabe.

Horiek horrela, COVID-19aren pandemiak dirauen bitartean Nafarroako Foru Komunitateak



dituen guneetara eta kultura-eskaintzara egokitu-ko diren ekitaldi seguruak eskaini ahal izateko, Navarra Suma talde parlamentarioak honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen du, Osasun Departamentuarekin batera eta kulturaren arloko eragileen lankidetzarekin, kultura-ekitaldiak egiteko protokolo bat egin dezan, beste erregio eta herrialde batzuetan egindako esperientzia ezagututa, Nafarroan baldintza eta neurri onenak baloratuz, jasotako ebidentzietan oinarrituta. Protokolo hori komuna eta homologatzeko modukoa izanen da, kultura-ekitaldiak programatzen duten sektoreko eragile guztientzat.

2. Nafarroako Parlamentuak Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen du, lan egin dezan izaera kulturaleko ekitaldietarako protokolo bat garatzeko, zeinetan antigenoen testak egin ahalko diren, horiek eragingarritzat jotzen direnean sintomarik gabeko pertsonen baheketetan, bermatze

aldera osasun-segurtasuneko maila handiagoa eta edukieraren portzentaje handiagoa, ekitaldiak bertan behera gelditzea ekidinez.

3. Nafarroako Parlamentuak Kultura eta Kirol Departamentua premiatzen du ekitaldi guztietan maskara homologatuak bana diezazkien agertzen diren guztiei eta kasuko ekitaldiko langileei, ahalik eta gehien murrizteko balizko kutsatzeen kopurua eta osasun-segurtasuna bermatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kulturaren sektoreko eragileak lagundu ditzan, aholkularitza, logistika eta zuzkidura ekonomikoen bidez, kultura-eremuetan behar diren inbertsioak eta egokitzapenak egiteko, ekitaldiak egiterakoan osasun-segurtasun handiagoa bermatze aldera eta horrela edukieraren murrizketak gutxiagotu ahal izateko, kulturaren sektorea dinamizatzeko helburuarekin.

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da sortu beharreko fiskal-lanpostuak sor ditzan, Nafarroako populazio osoari zerbitzu emateko.**

*MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita sortu beharreko fiskal-lanpostuak sor ditzan,

Nafarroako populazio osoari zerbitzu emateko. Mozioa 2020ko urriaren 15eko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/MOC-00057).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako larrialdietako laguntza fakturatzeko prozedurari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako larrialdietako laguntza fakturatzeko prozedurari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge

Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer ekintza edo ekimen abiarazi dira legegintzaldia hasi zenetik, Osasun Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonentzako larrialdietako laguntza fakturatzeko prozedura berrikusteko eta ekiditeko Migrazio Politiketako zuzendari nagusiaren aitopenen arabera gertatzen ari diren gorabeherak.

Zer bilera egin dira bi zuzendaritza nagusien eta gizarte-entitateen ordezkarien artean arazo horri heltzeko?

Gorabehera horiek bukatutzat jotzen al dituzue?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen osasun-txartela eskuratzeko prozedurari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen osasun-txartela eskuratzeko prozedurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge

Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer ekintza edo ekimen abiarazi dira legegintzaldia hasi zenetik, Osasun Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatuta, administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen osasun-txartela eskuratzeko prozedura berrikusteko eta ekiditeko Migrazio Politiketako zuzendari nagusiaren aitopenen arabera hori betetzen ez den egoerak?

Zer bilera egin dira bi zuzendaritza nagusien eta gizarte-entitateen ordezkarien artean arazo horri heltzeko?

Ez betetze horiek bukatutzat jotzen al dituzue?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, Gizarteratzeko eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Batzordea sortzeari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Gizarteratzeko eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Batzordea sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Harremanik edo egutegirik ezarri al da Gizarteratzeko eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Batzordea sortzeko, helburu analitiko eta proposatzaileekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, migratzaileak eta errefuxiatuak Hartzeko Nafarroako Sareari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, migratzaileak eta errefuxiatuak Hartzeko Nafarroako Sareari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Eratu al da Migratzaileak eta errefuxiatuak Hartzeko Nafarroako Sarea edo izapideak abiatu al dira organo berri bat eratzeko, Nafarroan migratzaileak eta errefuxiatuak hartzeko protokoloen prestaketa, jarraipena eta ebaluazioa egite aldera?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, berdinen arteko mentoretza programari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, berdinen arteko mentoretza programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge

Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Gutxi gorabehera 50 gazte daude, adingabe gisa iritsi eta gaur egun adinez nagusi direnak, eta integratze berriari baliabide bat behar dutenak, adingabeei zuzendu ohi zaizkienetik kanpo. Departamentuak hainbatetan proposatu duen berdinen arteko mentoretza programa eza-gun hori al da gazte horien beharrezko erantzuteko bidea?

Ezezkoan, zer ekintza edo ekimen abiarazi dira pertsona horien integratze berriari baliabide hori garatzeko?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, toki entitateekin eta gizarte-entitateekin kulturen arteko bizikidetzarako ekintzak indartzeari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, toki entitateekin eta gizarte-entitateekin kulturen arteko bizikidetzarako ekintzak indartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer ekimen abiarazi dira legegintzaldia hasi zenetik, toki entitateekin eta gizarte-entitateekin kulturen arteko bizikidetzarako ekintzak indartzeko?

Zer bilera egin dira Departamentuaren eta toki-entitateen eta gizarte-entitateen ordezkarien artean arazo horri heltzeko?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, integrazioaren aldeko hiri eta eskualdeen sarearen barruan Europako ikuspegia eta begirada duten ekintzak indartzeari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, integrazioaren aldeko hiri eta eskualdeen sarearen barruan Europako ikuspegia eta begirada duten ekintzak indartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer ekimen abiarazi dira legegintzaldia hasi zenetik, integrazioaren aldeko hiri eta eskualdeen sarearen barruan Europako ikuspegia eta begirada duten ekintzak indartzeko?

Iruñean, 2020ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido



## **Galdera, Ollokiko oinezkoentzako pasabide seguruari buruzkoa.**

*FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Ollokiko oinezkoentzako pasabide seguruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun dakion.

Zer konponbide emanen du Nafarroako Gobernuak Ollokiko oinezkoentzako pasabide seguru gisa, trenbidea zeharkatzeko Uharterako norabidean?

Noiz gauzatuko da aipatutako jarduketeta?

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

## **Galdera, A-12 autobiarri eta Pirinioko Autobia deitutakoari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, A-12 autobiarri eta Pirinioko Autobia deitutakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

A-12 autobiarren eta Pirinioko Autobia deitutakoaren eraikuntzaren ordainketari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

– Haietako bakoitzean 2020an eta 2021ean ordaindu beharreko zenbatekoen gaineko kalkuluak, zehaztuta haietan zer ukipen izan dezaketen mantentzeko balizko lan eta jarduketek, igarotzen diren ibilgailuen kopuruak gora edo behera egiteak edo ordaindu beharreko kuotaren definizioan eragiten ahal duten gainerako alderdiek.

Iruñean, 2020ko azaroaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Osasun Departamentuko telefono-lineen saturazioari buruzkoa.**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Osasun Departamentuko telefono-lineen saturazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

1.- Zergatik dago oraindik konpondu gabe Osasun Departamentuko telefono-lineen saturazioaren arazoa, pandemia hasi eta 8 hilabete iragan ondoren?

2.- Zer ekintza aurreikusten dira zure departamentuan arazo hori konpontzeko, eta zer epetan?

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **Galdera, 5G telefonia mugikorraren hedapenari buruzkoa.**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, 5G telefonia mugikorraren hedapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, idatziz erantzun dakion:

1.- Zer ekintza garatu gogo ditu Nafarroako Gobernuak 2021ean eta zer aurrekontu-aurreikuspenekin, errazte aldera gure erkidegoan 5G telefonia mugikorra hedatzea?

Iruñean, 2020ko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta haren enplegu-agentzietan aurkeztutako kexak areagotzeari buruzkoa.**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta haren enplegu-agentzietan aurkeztutako kexak areagotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eta haren enplegu-agentzietan aurkeztutako kexak areagotu al dira martxoaren 14tik? Baiezkoan, zer proportziotan?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan arreta handitzeari buruzkoa.**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan arreta handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

COVID-19aren krisia hasi zenetik (martxoak 14) enplegu-agentzietan arreta handitu al da?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan lan egiten duten langile-kopuruari buruzkoa.**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, COVID-19aren krisia hasi zenetik enplegu-agentzietan lan egiten duten langile-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

COVID-19aren krisia hasi zenetik (martxoak 14) enplegu-agentzietan langile-kopurua handitu al da? Baiezkoan, zein lanpostu, profil profesional, lanaldi eta destinorekin?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren orientazio-zerbitzuetan artatutako pertsonen buruzkoa.**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren orientazio-zerbitzuetan artatutako pertsonen buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zenbat pertsona artatu dira, orientatzaile bakoitzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, 2015eko uztailetik, hilabeteka?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu-agentzietako orientatzaile bakoitzarentzat ezarritako arreta-ratioei buruzkoa.**

*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu-agentzietako orientatzaile bakoitzarentzat ezarritako arreta-ratioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zein arreta-ratio ezarri da Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu agentzietako orientatzaile bakoitzarentzat? Zer irizpideren arabera?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, Iruñerriko trenbide-sare berriaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungitzearen ondorioei buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Iruñerriko trenbide-sare berriaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungitzearen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

– Nafarroako Gobernuak ba al daki Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumen Idazkaritzako Biodibertsitatearen eta Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza Nagusiak 2019ko urriaren 30ean iraungitzat deklaratu zuela "Iruñerriko trenbide sare berriaren proiektua: trenbidearen kiribilgunea kentzea eta geltoki intermodal berria egitea" izenekoaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena?

– Baiezkoan, noiztik daki?

– Nafarroako Gobernuaren ustez, zer ondorio juridiko edo bestelako ondorio ditu "Iruñerriko trenbide sare berriaren proiektua: trenbidearen kiribilgunea kentzea eta geltoki intermodal berria

egitea” izenekoaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena iraungitzat deklaratu izanak?

– Uste al du Nafarroako Gobernuak iraungitze-deklarazio hori abagune egokia izan daitekeela “Abiadura Handiko Trenaren Geltoki Berriko Espa-

rrua eta Iruñeko Tren geltoki Zaharreko Esparrua garatzeko udalez gaindiko plan sektoriala” delakoa ondorioz gabe uzteko?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, administrarien behin-behinekotasun luzeari buruzko epaiaren ondorioei buruzkoa.**

### *ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, administrarien behin-behinekotasun luzeari buruzko epaiaren ondorioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

2020ko martxoaren 19an, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak epaia eman zuen metatutako C-103/18 eta 429/18 auzietan. Epaia horretan, Madrilgo Erkidegoko Osasun Zerbitzuko estatutupeko langileen behin-behinekotasun-egoera luze-ari buruzko iritzia eman zuen, bai eta Iraupen Zehatzeko Lanari buruzko Esparru Akordioaren (1999ko martxoaren 18koa) 5. klausularen interpretazioari buruzkoa ere (1999/70 Zuzentarauaren eranskinean dago hori), behin-behinekotasunaren izaera abusuzkoari dagokionez.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

– Aztertu al ditu Gobernuak epai horrek Nafarroako administrazioetan aldi baterako zerbitzuak –kasu batzuetan duela urte askotatik– ematen jardun duten langile guztien egoera juridikoan izan ditzakeen ondorio juridikoak edo bestelako ondorioak?

– Ados al dago Nafarroako Gobernua kolektiboak eta bitarteko-langileak epai horren ondorio juridikoei buruz ateratzen ari diren interpretazioarekin, baieztatzen baitute beren egoeraren konponbidea ezin dela izan egonkortze masiboko lan-eskaintza publikoak onestea?

– Ados al dago Gobernua, halaber, esaten denean ezin izanen liratekeela lan-eskaintza publikoak egin plantilla organikoan hutsik dauden eta administrazio-kontratuekin edo bitarteko kontratuekin betetzen ari diren lanpostuetan?

– Gobernuaren ustez, 3 urte baino gehiagoz administrazio-kontratuekin edo bitarteko langileen kontratuekin lanpostu horiek guztiak betetzen dituzten pertsonak eskubidea al dute beren kontratuaren irmotasuna deklaratu dadin, nahiz eta funtzionario publiko gisa aitortuak ez izan?

– Gobernuaren ustez, zein lege-ekintza egin edo lege-aldaketa egin beharko lirateke Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen araudian, baldin eta epai horri buruzko doktrinak interpretatzen badu Nafarroak arlo horretan dituen eskumen propioei eragiten diela?

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique